

Maria Rivier

maitasuna gatik dena



Pilar Rom3rez
Jes3s Mario Lorente



María Rivier

maitasuna gatik dena



Maitasunetik sortzen da fedea,
fedetik miraria,
eta mirarian sortzen da gure historia.



Hitzaurrea

Kontutxo bat jakin nahi duzu?

Ezin ditut jasan ez maitasunari buruzko esamolde eginak, ez azukrezko kotoizko maitasuna, ezta filmetako bertsio erromantikoa ere.

Badakizu zergatik?

Hitz hutsek ez dutelako bihotzarekin bat egiten, lelokeria iragankorra delako, apetatsua eta errealitatea desitxuratzen duelako. Maitasuna idealizatzen delako, eskuraezina, irreal, zein azalekoa bihurtzen delako. Eta batez ere, maitasuna, horrekin guztiarekin nahasteak, bihotzetik bizitzearen handitasuna kentzen duelako.

Maitatzea, zure historia bere ñabardura guztiarekin onartzea da, nor zaren jakitea da, zeure burua ezagutzea, entzutea eta errespetatzea.

Txikitan ohetik erori nintzen eta dena aldatu zen, konfiantza izaten ikasi behar izan nuen ibili baino lehen, bakardadearekin jolasten eta minez hazten. Nire zirkunstantziak ez ziren errazak izan, ziur zureak ere ez, inoiz ez dira izaten.

Historia ausartek idazten dutela entzungo zenuen eta nik, maitatzea ausardiako ekintza dela esaten dizut, zugandik irtetea baita, zure dohain eta beldurrekin, eskuzabaltasunez ematea.

Maitatzea pertsona erdian jartzea da, elkargunea eta elkarrizketa da, integrazioa eta aniztasuna da. Maitatzea zabaltzea da, maitasunean ez da ezer ziurtzat jotzen, ezta bukatutzat ere, ez dago ezer ezarrita.

Maitatzea besteekin izatea da, haragitzea da, Jainkoa guztiaren erdian jartzea da.

Horregatik esaten dizut maite dutenek idazten dutela historia, eta hori mundu guztiaren eskura dago, denok gara maitatzeko gai, baita zu ere.

Hitz hutsik gabe, azukrerik gabe, erromantizismorik gabe, benetako Maitasunak, barrutik nahiz kanpotik eraldatu egiten du, miraria ahalbidetzen du.

Maria Rivier.



Suak sua eragiten du.

***Argi - zuzi piztu batek beste batzuk pizten ditu, eta
Jesukristo aurkitu duenak munduari ezagutaraztea
bestarik ez du nahi.***

(María Rivier)



Senda nazazu!

Eta hiru urteren ondoren, 'Pietá' delakoaren aurrean, miraria gertatu zen.

Maria Rivierrek, iragarpen ororen aurka, fede sendoa bizi du, argi eta garbi ezinezkoaren aurka. Jainkoarentzat bizitzeko eta maitatzeko erabaki irmotik sortzen den fedea.

Ikusten duenarekin ez da asetzen; berak sinetsi egiten du, fedea da bere berme bakarra eta fedetik eraikitzen du bere itxaropena. Eta fede hori da bere bokazioaren sorburu.

Maite dutela sentitzen duelako fidatu egiten den neskatoaren fedea, eraldatzen duen eta agintzari bihurtzen den esperientzia:

"haurrak ekarriko dizkizut maita zaitzaten".

Posible dela sinestea da fedearen miraria, doako maitasuna, ikusi aurretik sinestea.

Hb 11,1-3
Jr 1,4-8





Txikia naiz tamainaz eta gaixo naiz umetatik.
Jesusengan sinestea, ezinezkoa posible, txikia handi eta hauskortasuna indar bihurtzen dela jakitea da.

Magia edo trikimailurik gabe, Jainkoak mugitzen baitu zure bihotza.

Zeure burua ezagutzea, nor zaren jakitea, fisikoarekin zerikusirik ez duen indarra ezagutzean datza. Zure sendotasuna eta zure handitasuna zeure bihotzean daude, zeure benetakotasunean. Zeureganako eta besteenganako maitasun mugagaberako gaitasunean.

Ez utzi estereotipo eta aurreiritziek zure bizitza erabakitzen. Batzuetan ez gatoz bat besteek munduari begiratzeko duten erarekin, baina hori da: beraien begiratzeko era. Hori ez dadila epai bihurtu, horrek ez zaitzala geldiarazi.

Maria Rivierri askotan EZEZKOA eman zioten, bere egoera fisikoagatik, bere txikitasunagatik, mesfidati agertzen baitziren. Ez ziren bere barruko indarra ikusteko gai izan eta berak erakutsi egin zien.

Eskaini ikusteko era berriak eta itxaropena izango zara besteentzat.

Fidatu, maitatu eta dena aldatuko da.

Lk 10, 21
1 Ko 2, 1-5





Maria Rivierrek oztopo sozial ugari aurkitzen ditu eta gorrotoari, jazarpenei eta Frantziako Iraultzak ezarritako gizarte beldurrari aurka eginez aurrera egiten du.


Garai horretan, irakaskuntza erlijiosoa debekatu egiten da, komentuak itxi egiten dira eta kongregazioei askatasuna ukatzen zaie.

Emakume ausarta da, unez une bere onena emateko eta zailtasunei konplexurik gabe aurre egiteko prest dagoena; zailtasunak maitatzeko, eraldatzeko, errealitate berria sortzeko aukeratzat jotzen ditu eta horregatik ez du ezerk geldiarazten.

Gure bidean, beti agertuko dira zailtasunak, bizitza horrela baita, baina geuk erabaki behar dugu nola aurre egin, nola bizi, nola gainditu.

Dena zeure barruan dago.

Dt 30,11-16
Ef 6,14-17





Jainkoaren handitasunak eta misiorako jaso duen deiak liluratu egin du Maria Rivier. Baina ez dago misio handirik edo egitasmo lorrezinik Jainkoak Berak zeure bihotzean ipintzen duenean.

Gauza handiak egiten ditu ezer eduki gabe, askotan ezin duela sentiturik, guztia eta guztiak aurka izanik. Hegan egiteko gauza da, ibiltzeko egundoko zailtasunak baditu ere.

Txiki, beldurrez beterik ikusten du bere burua, eta bere mugak aitortzen ditu, baina konfiantza osoa du eta Jainkoaren eskutik doala sentitzen du.

Hainbesteko txikitasunaren eta baliabide urrien aurrean, **nola jarri zalantzetan Jainkoak ekarri gaituela honaino?**

Gure ahultasuna aitortzea bihotzez maitatzera garamatzen ekintza ausarta da, eta horretan jartzen du berak bizitza osoa, erreparorik gabe.

Erm 8, 28-31
Is 40, 31





GUZTIA, sagarapena laburbiltzen duen hitza da, bihotzetik bizitako eta emandako bizitza.

Ahal bezain beste maite zaitut eta, gaur eta orain dakidan guztia, gaur eta orain ematen dizut.

Eta kolore guztietako egunak daudela kontuan hartuta, batzuetan "guztia" hitza pozez beteta egongo da, beste batzuetan zalantzaz beteta, edo beldurrez, ilusioz, eskuzabaltasunez, iluntasunez, itxaropenez edo beste zerbaitez; ez dio ardurarik. Zeure izate, arima eta bihotz osoaz maitatzea da garrantzitsuena.

Maitatzeak bizitza aldatzen dizu. Ezer ez da berdín izango, ez baituzu berdín begiratuko. Maitatzea, partaide izatea da, bestearekin bat izatea, iraultza da.

Maitatzea, guztia da, eta guztia, Jainkoa da.

1 Ko 13
Mt 7, 24-27





1976ko azaroaren 21ean, Maria Rivier ezkutuan kontsaktatzen da, kongregazio erlijiosoek jasaten duten jazarpenaren eraginez, eta bere lau kideekin batera, Presentación de María Kongregazioa sortzen du.


Egun oso garrantzitsua da, pozgarria, makina bat lagunen bizitza aldatuko duen aldi berriaren hasiera.

Egun horretan ospatzen den jaiagatik hartzen du Kongregazioak izena, Maria Rivierrek antzekotasun handia ikusten baitu egun horren esanahi sakonaren eta berak ahizpentzat amesten duenaren artean.

Antzinako tradizioaren arabera, Maria Birjina txikia zenean, gurasoek, San Joakinek eta Santa Anak, Jerusalemeko tenplura eramane zuten eta Jainkoari aurkeztu zioten, bere jaiotzagatik eskerrak emateko eta bere sagarapenerako eskaintzeko.

Maria Rivierrek pozez eta esker onez bizi nahi ditu eskaintza eta bizitza bera, Jainkoa bihotzez zerbitzatu nahi du eta osotasunez maitatu; horixe da bere ametsa.

Santiagoren Protoebanjelioa
Eg 4, 32-35





Denek Zu maitatzea lortuko dut.



“Bihotz handia baduzue, benetako poza sentituko duzue”. (Maria Rivier)

Eskuzabaltasunak bizia kutsatzen du, zuzenean pertsonen bihotzera doazen zeinuak baitira, doakotasunetik konektatzen eta aberasten gaituztenak.

Eskuzabalak izatea, bihotza parez pare irekitzea da, materialetik harago, baldintzarik gabe ematea.

Bihotzetik sortzen diren zeinuak, oinarrizko esperientziak dira besteentzat, eraldatu, begirada aldatu, sakonetik batu egiten dutelako.

Bihotza zabaltzeak hurbildu egiten gaitu eta aldeak ezabatu egiten ditu. Benetako maitasuna eta gauzak ondo joatearen menpe ez dagoen benetako poza ahalbideratzen du.

Handitu zure bihotza mundu osoak lekua izan dezan, denok pozik bizi gaitezen.

1 Tes 5, 14-21
Jn 15, 9-11





Otoitz egitea, Jainkoarekin bat egitea da, doan elkartzea, Jainkoaren maitasunaz gozatzea da. Esperientzia horrek gure bizitza osoa eraldatzen du.

Otoitz egitea ez da Jainkoarekin hitz egitea bakarrik, entzutea ere bada, lagunartean elkartzea, otoitzaren xede nagusia Jainkoaren borondatea bilatzea baita, zure bihotza zintzotasunez irekitzea.

Horrexegatik, otoitza ezinbestekoa da Maria Rivierrentzat. Bere bizitzaren euskarria da, Jainkoarekiko batasunaren sorburua. Basamorturako, isiltasunerako, dena alde batera utzi eta intimitate horretarako, batasunerako deia sentitzen du.

Isiltasunak dena irakatsi zion, bakardadean aurkitu zuen bere bokazioa.

Eta utz diezagukeen gauzarik onena dela deritzo:

***“Otoitzerako Espiritua uzten dizuet oinordetzan”
(Maria Rivier)***

Bilatu isiltasunean, baretasunean, eta harritu egingo zara.

Mt 6, 5-13
Os 2, 16





Baliteke otoitz egin eta ez maitatzea?

Bizi liteke bakarrik zerura begiratzuz?

Jainkoa bizitzan haragitzen da, oinak lurrean dituela bizi da, buruz buru, begietara begira eta horixe da gure deia: Jainkoak zu eta ni maite gaituen bezala maitatzea.

Otoitza Jainkoarekiko elkarrizketa da, ez bakarrizketa, horregatik ezinbestekoak dira bi edo gehiago izatea. Elkarrekin egotea, osotasunean izatea, bizi konpartitzea, elkar laguntzea eta isiltasuna da.

Eraman otoitza egiten duzunera eta egiten duzuna otoitzera, horixe da fedea biziitzea.

Mt 18,19-20
2 Tm 4,2






“Zuen bihotzaren sakon-sakonean Jainkoarekin elkarrizketan jarduten ikasi”. (Maria Rivier)

Otoitz egin uneoro, bakarrik zaudenean nahiz jendetzaren erdian.

Jainkoarekiko harremana une jakin batzuetara, eremu zehatzetara, liturgiara mugatzea, Jainkoa bizitzatik bereiztea da, banantzea eta azken batean, Jainkoa geure neurrira egokitzea, eta ondorioz, bere mezua zentzugabe bihurtzen da.

Jainkoa pertsona guztiengan bizi da. Biziki sentitu Jainkoaren presentzia hori, aitortu **Jainkoaren presentzia une eta egoera guztietan.**

Lk 11,1-4
Ef 3,14-21





Esker oneko izatea, aparteko ezer gertatzen ez bada ere, guztiagatik eta ezer bereziagatik, bihotzarekin begiratzen jakitea da.

Bizi dugun une bakoitzaz gozatzea da; begiak ireki, mundura zein kanpora begiratu eta zenbateraino behar dugun elkar ikusi. Ikuspuntua geure unetik, gure unibertso txikitik harago zabaltzea da.

Gelditu, begietsi eta hedatu, munduarekin konprometitzeko; elkarren partaide sentitzeko. Xehetasun guztiez, zeinu guztiez jabetu eta guztian Jainkoa ikusi, laguntzen digun bere eskua ikusi.

Beti dago arrazoiren bat bihotzez ESKERRAK emateko.

Kol 3,15-17
Flp 4,6-9





Probidentzian konfiantza izatea begirada eraldatzea da, etengabeko bilaketa da, askatasunaren sinonimoa da; garrantzitsua dena, zure bizitza mugitzen duena, beti non dagoen jakinda bizitzea baita.

Gauzen eta gertaeren esanahia, ez dela soilik beren baitan dutena, baizik eta guretzat duten esanahia jabetzea dela irakasten digu Maria Rivierrek, eta horregatik dio:

“Egon beti Jainkoak nahi duenari irekita”.

Aurkitzen dugun guztian dugu zain Jainkoa, norbere burua Haren esku utzi eta bihotzaren taupadak entzutea da erronka.

Elkarren probidentzia gara, ireki begiak, begiratu eta konfiantza osoa izan.

Mt 6, 33-34
Mt 6, 19-21





Zenbat zareten galdetuz gero, "bat gara!" erantzun.

Besteekin garelara, bihotz bakarra eta espiritu bera izatera deituak garelara gogoratzen digu hitz horiekin Maria Rivierrek.

Batasuna aniztasunean eta desberdintasunetan bizitzeak hurbildu eta ahaldundu egiten gaitu.

Gure indarra, familia edo tribu sentitzean datza, deitu nahi duzun bezalara, bihotz bakarra garelara sentitzean.

Gure lehen egitekoa, geure burua eta besteak maitatzera garamatzen **bihotzarena da**, horrelara ez bada, bizitza ez baita bizitza.

Maitatzea arriskua da bizia ematea baita, baina ez maitatzea, bizia galtzea da.

Jn 17, 21
1 Ko 12, 12-27

DENOK BAT GARA





Jainkoa maitatzea, mundua erabat besarkatzea da.

Jainkoa izaki guztiengan eta bakoitzarengan maite dugu, denak baitira bere maitasunaren adierazle.

Baliteke Jainkoa begiak itxita, errealitateari bizkarra emanda bizitzea?

Gure fedea begiak irekita eta bihotza prest izatea eskatzen du, biziarenganako maitasun-aitortza da eta elkarrekin etorkizuna eraikitzeko konpromisoa.

Denona den etxea zaintzea eta errespetatzea guztion egitekoa eta gutako bakoitzaren erantzukizuna da.

Zeinu bakoitzak, ekintza bakoitzak, nahi dugun bizitza erakusten du. Gure erabakia, maitatzea bada, ezin gara planeta gutxietsiz, hondamendi ekologikoen aurrean ez ikusiarena eginez eta besteen egitekoa dela pentsatuz bizi.

Maitatzeak mundua eraiki eta berreraiki egiten du gure barruan eta kanpoan.

Has 1
Sal 148





Apaltasuna da gure bokazioan zorioneko egiten gaituen talismanana, bihotzetik sortzen delako eta maltzurkerietatik libre delako, xumetasuna baloratzen duelako eta errealitateari itsatsita eusten gaituelako.

Apaltasuna da bihotza irekitzen duen giltza eta geure esentziatik begiratzeko, geure ahultasunak ezagutzeko eta aitortzeko, garrantzitsua eta benetan oinarritzkoa dena bereizteko aukera ematen digu.

Apala izatea, benetakotasunetik jokatzea da, gertuko izatea, entzuten jakitea eta jendearekin konektatzea. Konplize eta zintzo izatea, zintzotasun eta apaltasunetik egiten denarekin konprometitzea da.

Egiten duguna zenbat eta apaltasun handiagoz egin, orduan eta on gehiago egingo dugula dio Maria Rivierrek, apaltasunez jokatuz gero, batasuna, bat egitea, eta benetako bizia baitago. Bakarrik ezin dugula ezer lortu gogorarazten digu apaltasunak.

Flp 2, 3-11
Lk 9, 48





Senidetasuna bizitzea, odol-lokarrietatik harago, familia izatea da, anai-arreba sentitzea eta maitasun sakonetik elkar zaintzea.

Zeinuek, samurtasunak, zerbitzuak, zein doako maitasunak, egokitzen dute apurka-apurka benetako elkarte bihotza, benetako senidetasuna.

Ezberdintasunean elkar maitatzeak eta onartzeak, hazkundera dakarkigu. Epai eta ulertezintasunek elkarrengandik alendu egiten gaituzte, min ematen digute eta txikiago egiten gaituzte.

Zeure mugak, akatsak, zein beldurrak onartuz gero, errazagoa da besteenak onartzea eta ulertzea, hori da elkarbizitzea ahalbidetzen diguna.

Senidetasunak bestearen oinetakoak janzteia eskatzen du, baina ez ahaztu horretarako ezinbestekoa dela oinustea.

Erm 12, 15-16
Lk 10, 25-37






Maria Rivierrek duena elkarbanatzen du, asko, gutxi ala ezer ez izan, bere izatea partekatzen baitu.

Ez zuen inoiz ezer izan, pobretasun ekonomikoak markatu zuen bere ibilbide osoa, baina hala ere, eskuzabala izan zen eta gauza handiak egin zituen.

Elkarbanatzea, adiera guztietan biderkatzea da, ez bakarrik arlo materialean.

Gaur egun, denetatik dugu eta aukera guztiak eskura ditugu, hala ere, eskasian bizi gara, sekula ez dugulako nahikoa. Daukaguna eta garena galtzeko beldurrez eta erreparoz bizi gara, errezeloz ematen dugu. Eta horrek, ez du biderkatzen, murriztu egiten du, ez baita sortzen nor bere burua emateak dakarren askatasunetik.

Mt 19,16-30
Mk 12,41-44





“Gure bizitza Ebanjelio irekia izan dadila, bertan jendeak Jesus Jesukristo irakur dezan”. (Maria Rivier)

Egiteko ederra Ebanjelioa bizitzearena, lurrean zeruan bezala bizitzea ahalbidetzearena.

Ebanjelioa izatea, Jainkoaren hitza bizirik mantentzea da, Berri Ona izateko eta bihotzak pizteko haragitzea.

Maria Rivierrek zer den garrantzitsua gogorarazten digu, “Presentación de María”ren bokazioaren arrazoiak, zertan datzan. Jesusen mezua da, maitasunezko mezua, non pertsonak lehenesten diren.

Garena izatera eta gure esentziatik bizitzera deituak: Jainkoaren antz eta irudiko gara.

Jn 15,13-17
Jn 20,19-22





Maria Rivierrek Espirituaren sua sentitzen du barrutik eta su horrek bultzatzen du gauza pentsaezinak egitera, su horrek argitzen du bere misioa.

Berak badaki piztuta dagoen argi-zuziak beste asko pizten dituela, hau da, bakarrik biziak kutsatzen duela bizia, eta hori bihotzean grabatuta darama.

Argia gara eta ez du inork argirik pizten kutxa barruan gorde eta ezkutatzeko. Ikusi eta entzun duguna kontatu egin behar dugu, jaso dugun argia bihotz guztietara eramateko.

Eta noizbait une ilunak bizi dituzula sentituz gero, ez izan beldurrik, aurre egin une horiei, iluntasunak argia finkatu egiten baitu, ez itzali. Begiratu besteen argiari, bilatu ereduak eta jarraitu aurrera bidean. Argiak argiztatu egiten gaitu, laguntzen digu.

Mt 5,14-16
Eg 2,1-11





Gertatu al zaizu noizbait zerbaitek edo norbaitek egundoko ilusioa edo asebetetzea eragitea eta hori ezin ezkutatu izana?

Beste ezertan pentsatzen uzten ez dizun, geldirik uzten ez zaituen, barruan korapiloa sentiarazten dizun eta sofatik altxarazten zaituen eromena..., horixe da, hain zuzen ere, Maria Rivierri Jesusekin gertatzen zaiona.

Pasioak, gogoak, berotasunak, ardurak, irrikak,... honek bere mezua munduaren azken muturreraino eramateko edozein zailtasun gainditzera darama. Grina neurrigabea, zailtasunez eta oztopoez ez dakiena, ziurgabetasunean, etsipenetan konpromisoa eta desengainuetan maitasuna besterik ikusten ez dituen.

Maitasunezko eromen hori da bere oparirik onena, benetan maite duzunean geldiezina zarelako, bizirik sentitzen zarelako, benetakotasunetik, bihotzean duzunetik bizitzera arriskatzen zarelako. Horixe da gure fedea eta poza.

Sal 16, 5-11
Jn 20, 11-18





Mariak ahalbidetzen du guztia, dena bere oinetan, bere altzoan sortzen da.


Bere irribarreak gure urratsak finkatzen ditu eta bere begiek gure misiolari bokazioa, Jainkoak maite gaituen bezala maitatzeko ametsa berresten du.

Mariaren alabak gara. Bera da gure babesa, bidea eta itzaropena.

Mariarekin dena da posible, Berarekin aurrera egin, hazi eta bizia ematen dugu.

¡IARO RIS!

Ap 12,1
Lk 1,46-55





Iragartzeko pasioa, Jesusen Berri Ona eramateko grina.

Maria Rivierren barruan sutan den Ebanjelio-senak, Jesus edonon, edonoiz eta edonori iragartzera bultzatzen du.

Bihotzean gordetzen duenaz, barrutik mugiarazten duen biziak hitz egiten du. Bere iragarpena argia da, denek ulertzen duten hitz erraz eta ezagunez hitz egiten du, horixe baita bere erronka nagusia: denekiko lotura, salbuespenik gabe.

Ez du ezezagunaz hitz egiten. Esaten duen guztia, aurretik bere bihotzetik pasatu du, otoitzera eraman du eta bizitza zeharkatu dio. Hori da teoriak edo esperientziak hitz egitearen aldea.

Maria Rivierrek pertsonen bihotza ukitu egiten du bizia helarazten duelako eta horrek beti dakarrelako aldaketa, pentsatzea, bide egiteko deia.

Lk 4, 14-21
Ef 3, 8-21





Jainkoak niregandik nahi duen guztia, neuk nahi dut.
(María Rivier)

Lk 1, 26-38
Jn 1, 35-51





“Ez duzue ez iragana ez etorkizuna, bakarrik orainean lagun dezakezue”. (Maria Rivier)

Gertatzen den guztiari begiak ireki, oraina bizitzeko, hemen eta orain gozatzeko. Denbora luzez beste nonbait dugula bizi gara. Errutinak, automatikoan bizitzera garamatza, ardura handia jarriz iragana gogoratzean eta etorkizunaz kezkatzean.

Iraganaren eta etorkizunaren artean galtzen dugu bizitza eta benetan dugun bakarra oraina da.

Oraina bizitzea, bizitzari zukua ateratzea da, xehetasunak estimatzea, egun bakoitzak dakarkigunari bizia ematea.

Bizia, oparia da; antzeman Jainkoa guztian eta hortxe aurkituko duzu zoriona.

Mk 8,36-37
Qo 3,1-8



BIZI!
GAUR-HEMEN



Jesus ezagutu, Jesus bizi, geure bizitzarekin Jesus agertzera eman: horra hor gure bokazioa.

Zure barruan bizia mugitzen denean, ezin da ezkutatu, ezin da disimulatu. Bizitzera, bizia ematera eta Jainkoarengandik jaso duguna kutsatzera deituak gara.

Maria Rivier gazteez maitemintzen da, beren ilusioaz, begiak irekita amets egiteko gogoaz, Maitasunera irekitako beraien bihotzez. Eta beraiekin egiten du bidea, bizitzaren funtsa, Ebanjelioaren poza eta maitasunaren iraultza erakusteko.

Bizitzarekin konprometitutako gazteak, oinak lurrean dituztenak, txikienean ondoan daudenak.

“PRESENTACIÓN” gara.

Ga 5, 13-14
1 Tm 4, 12



Emakume apostolua

Zeregin hau ez da nirea, Jainkoarena da.





Maria Rivierrek bihozkada bat du eta, atsedetik gabe, Jesus mundu guztiari eramatea du xede. Jesusen eskutik ikasten du harago begiratzen, munduaren beharrez jabetzen, jendeari entzuten.

Ez du amore ematen, irribarrea du beti ahoan. **Zalantza eta beldurren gaintik, seguru sentitzen den emakumea da, jakin baitaki Jainkoa indartsu agertzen dela bere ahulezietan.**

Edonon, bazterrik ezkutuenetan, begirada tristean, harrizko bihotzean, nekatutako eskuetan, eginahalak egiten ditu Jesusi buruz hitz egiteko eta honen maitasuna eramateko, argia eta itxaropena oraindik ezagutzen ez duten guztiengana hurbiltzeko.

Umetatik ikusi eta entzun duen guztia kutsatzea, Jaunak berarekin egin duena kontatzea, bizitza hori denei eramatea, denek bizi dezaten.

Mk 10, 27
2 Ko 12, 9-10





Behartsuen aldeko konpromisoa da Maria Rivierren bizitzaren ardatza; horregatik, bere esanetan, kongregazioak noizbait behartsuak ahaztuko balitu nahiago luke desagertzea.

Pertsonen beharrei erantzutea da bere lehentasuna. Bakoitzari behar duena emateko ezinbestekoa da gelditzea, entzutea eta begietara begiratzea.

Besteen irrika eta itxaropenen, zein beren beldur eta gabezien aurrean adi egoteak handiagotzea dakarkigu guztioi, konpartitu daitezkeen gauza materialetatik harago elkartzen gaitu eta.

Maria Rivierrek inoiz ez zion inori laguntzarik ukatu, bihotzera begiratuz gero zaila baita beste alde batera begiratzea.

Mt 5,1-12
Mt 25,31-46





Jesus bihotz-bihotzez, gorputz eta arimaz eta indar guztiez maitatu.

Jesus maitatzeko, ezinbestekoa da maitasunez betetako bihotza izatea, lasaitasunez, benetakotasunez, isiltasunez betetako bihotza. **Gure lehen eginkizuna, bihotzari zuzendutakoa da:** bihotza zaindu, entzun, maitatu.

Geure burua maitatzea, maitasuna eman ahal izateko, horixe da iraultza.

Jainkoa zintzotasunez bilatzen duten bihotz apaletan agertzen da. Bizira irekita egotea, gure bihotzak gordetzen duenarekin zintzo jokatzeari, besteengana hurbiltzeko eta bitzta konpartitzeko bide izango da.

Ez izan beldurrik zaren bezala agertzeko, horrek handi egingo zaitu eta.

Ez izan beldurrik isiluneei, bakardadeari, hor zeure bihotza entzungo duzulako, zeure buruarekin eta Jainkoarekin aurkituko zarelako eta horrek indarra emango dizulako.

Ez izan beldurrik eta leial jokatu zure bihotzarekin, horrela besteengana hurbildu eta zorionekoa izango zara eta.

Mk 12, 28-30
Erm 8, 35-39





“Elkar gaitezen eta sor dezagun eskola!”, zioen gure sortzaileak.

Hezkuntza da gure misioaren bihotza, **Berri Ona eta Jesusen maitasuna iragartzea da gure karisma.** Eskolan, elkarrekin hazten gara maitasun, askatasun eta familia-senetik.

Irakatsi, lagundu, eutsi, onartu, hezi, gure eskoletatik igarotzen diren guztiak maitatu,... horixe da, zalantzarik gabe, Maria Rivierrek uzten digun ondarerik bikainena.

Pertsona lehenestea baita, bere ilusioak, ametsak, sendotasunak, beharrak ikustea, eta Jesusek egingo lukeen erara erantzuna ematea. Bakarrik horrela sentituko du maite dutela eta haziko da.

Lk 13, 20-21
Lk 2, 41-52





Maria Rivierrek pertsona apalengan, jende xumearengan, txikiengan erakusten digu Jesusen aurpegia.

Pobretasunak, oinarrizko beharrei erantzuteaz gain, itxaropena izatera deitzen gaitu. Soberan dugunetik ematea, bidegabekeria eta desberdintasunak normalizat hartzea litzateke eta ez da horrela.

Aberastasuna, garena da eta ez daukaguna; pobretasuna, daukagunaren fruitua da.

Luzatu eskua pertsoneri, ezer ez badute ere, ireki zure begiak errealitateari, errealitateak hunki zaitzala.

Begiratzeko era aldatu behar dugu, mundu honetan denok duintasunez bizitzeko aukera emango digun mundu hobea egiteko.

1 Jn 4, 20-21
Is 58, 1-12



ASKATEN GAITU

2023





Mundura eta bizitzara zabal-zabalik dagoela **hiltzen da Maria Rivier, 1838ko otsailaren 3an.**

Bere bizitza, mundura zabaldutako leihoa izan zen; gauza guztiek erakartzen zuten bere arreta, nahiz gauza txikiak, nahiz pertsonen behar handiak, adi zegoen guztiaren aurrean, xehetasunak zaindu zituen, Jainkoa hortxe zela zekielako.

Bere egintzak, nahiz eta oztopoak ugari eta baliabideak urriak izan, une hartan, bizitza eraldatu zuten haize freskoa ziren.

Leiho irekia Jainkoaren handitasuna izadian kontenplatzeko, edonon, edozeinengan Jainkoarekin bat egiteko.

Maria Rivierrek utzitako ondarea, bizitzara oso-osorik irekitzea da; bat egitera ateratzeko, leihoak zabal-zabal irekitzeko eta mundua besarkatzeko esaten digu.

Jn 14, 26
1 Ko 1, 26-31





Maria Rivier, maitasuna muturreraino bizi duen emakume ausarta. Bere bizitza eta lagun askorena eraldatzen duen maitasuna.

Pertsonekin elkartzean, aurrez aurre topatzean, **Errukiaren sakramentua** ematen digu aditzera Maria Rivierrek, hau da, bizitza begiratzeko, Jainkoaren aurpegia jendeari gerturatzeko deia besterik ez dena. Besteekiko konpromisoa da, komunitate-lokarriak sortzea.

Begietara zintzotasunez begiratzeak ausardia eskatzen du, bizitzari eraldatzen uzteko prest egotea, sakontasunez bizitzea.

Gure ezberdintasunak onartzea eta hortik **familia** handia eraikitzea, bizitza eta fedea partekatzea, Jainkoaren Erreinuaren zeinu izateko, elkarri eskua emanda ibiltzea, hori da abentura.

1 P 3,15
1 Ko 13,1-13





Maria Rivierrek Mariarenganako konfiantza osoa agertzera eman eta modu ikusgarri eta iraunkorrean adierazteko beharra sentitu zuen, horregatik, komunitateetako ateetan ondorengo esaldia grabatzeko eskatu zuen: **“Ama Ona, zaindu zure etxea”**. Bere seme-alabak garelara eta gure Ama babeslea dela gogorarazten diguna.

Harri eta eraikinetatik harago, onartu, babestu eta zaindu egiten duen etxea gara. Gaur gure arimetan agerian jartzen dugu Maria dena dela guretzat, berarekin eskutik helduta ibiltzen garelara eta dena posible dela, gure bihotza gordetzen duena bera denean.

Maria, zaindu zure etxea .

Jn 19, 25-27
1 Ko 3, 16-17





Sortzaileak, egitasmo zein amets ugari ditu, laster egi bihurtuko direnak.

“Egun batean, nire alabek itsasoak zeharkatuko dituzte”. (Maria Rivier)

“Presentación de María”, misiolaria da eta mundua zeharkatzen du Berri Ona iragarritz, etxeak irekiz, behartsuenak zerbitzatuz, bihotzetik erantzunak emanez, argi egiten duen eta beste hainbat su pizten duen sua izanik.

Gaur egun, munduko hainbat lekutan gaude, eta orain ere, garbitzen, argitzen eta berotzen duen sua gara. Jesusekin batera sua gara, Berak bidaltzen gaitu eta gure misioari zentzua ematen dio.

Gaur egun, denok gara egiteko horren partaide, atal garrantzitsua gara Berri Ona bihotz guztietara zabaltzeko.

Historia honetako protagonistak gara.

Mk 16,15-20
Has 12,1-2

Misiolariak gara



ELKAR GAITEZEN!



Egin dezagun bidea sineskor





Jainkoaren maitasuna aldarrikatzen dugu.







“PRESENTACIÓN DE MARÍA” KONGREGAZIOA